
NOR ZARA ZU?
BILATU ZEURE IDa
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
DEPARTAMENTO DE INTERIOR

# NOR ZARA ZU? BILATU ZEURE IDa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

**Argitaraldia:** 1.a, 2012ko abuztua
**Ale-kopurua:** 5.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo Saila
**Internet:** www.euskadi.net
**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1– 01010 Vitoria-Gasteiz
**Egilea:** Sortzen Consultoría, S.L.
**Itzulpena:** Herrizaingo Saila
**Inprimaketa:** Ona Industria Gráfica
**L.G.:** VI 500-2012


RIIIIIIIIING!
BERDINTASUNA
... NAHIKOA DA, NESKA-MUTILAK, BIHAR JARRAITUKO DUGU GAI HONETAZ HITZ EGITEN.
AZKENEAN, BOKATA!
HAU GOGAIKARRIA!
A ZER ASPERGARRIA BERDINTASUNAREN KONTUA! BAGARA BERDINAK ETA,...


IKASTETXETIK IRTETEAN...
... NESKA JATOR ASKO DAGO.
BAI, ETA MUTIL MAJOAK ERE BAI. DENAK EZ DIRA BERDINAK.
NOR GERATUKO DA PARKEAN?
EZER ENTZUN DUZUE MARTARI BURUZ? IKERREKIN IBILI ZENEAN, LEPO OMEN ZIHOAN ETA EZ OMEN DA EZERTAZ GOGORATZEN.
BAI... ETA EZER EGITEN EZ DUEN HORIETAKOA DIRUDI. GAINERA, INSTITUTUKO EMAKUME HORI BERDINTASUNARI BURUZ HITZ EGITERA ETORTZEN ZAIGU.
BEHARBADA, IKER ZIHOAN LEPO ETA MARTA IZAN ZEN PASATU ZENA.
?
NORA ZOAZ?
BEGIRA HONI. LEHEN EZ ZEGOEN. "BILATU ZEURE IDa". ZER ESAN NAHI OTE DU?
NOR ZARA ZU?
BILATU ZEURE IDa


BAINA ZER...?!
BLUUUBS...
UAAAAAAAAH...
IIIIIIIIIIIH!!!


NON NAGO?
JON, NON ZAUDE?


ZEIN LEKU DA HAU? ANE? ANE??
AI! NOR ZARA ZU? NON DAGO JON?!
ONGI ETORRI IDRA. LEKU HONETAN DENA POSIBLEA DA. ZURE GIDARIA NAUZU ETA EREMU EZEZAGUN HONETATIK LAGUNDUKO DIZUT. JON HARRAPATUTA DAGO. BERRIZ IKUSI NAHI BADUZU, LEHENAGO ZEURE BURUA AURKITU BEHARKO DUZU.
ANE, ASPER-ASPER EGINDA ZAUDE NESKEK ETA MUTILEK NOLAKOAK IZAN BEHAR DUTEN ENTZUTEAZ... AGIAN NAHIAGO IZANGO DUZU JAKIN NOR ZAREN ZU.


BITARTEAN, JON IDn...
NI ZURE GIDARIA IZANGO NAIZ. ANE BERRIRO IKUSI NAHI BADUZU, KEZKATZEN ZAITUZTEN ZALANTZA BATZUK ARGITU BEHARKO DITUZU...
ZER ARI DA GERTATZEN?
NOR ZAREN JAKITEKO KORRONTEZ KONTRA JOAN BEHARKO DUZU.
KORRONTEA? ZER KO...?
AAAAAH!
NOIZTIK EZ DUZU SEXU-HARREMANIK IZAN?
ITXURA HORREKIN EZ ZARA INOREN GOGOKOA IZANGO...
EZ IZAN ITXIA...
NESKA GUZTIOK EGITEN DUGU...
DENAK BALIO DU GUSTAGARRI AGERTZEKO
EGUNEAN EGOTEKO GAUZA BATZUETAN AMORE EMAN DEZAKET... BAINA BADAUKAT EZETZ ESATEA.
NIRE LAGUNEN GUSTUKOA IZAN NAHI DUT, BAINA NEURE BURUA ERE ATSEGIN DEZAKET.
PROBA GAINDITUA! JOERA NAGUSIA GAINDITU DUZU ZEURE KONTU PENTSATUZ.


HARA, KALE HAU IKUSTEKO MODUKOA DA! ISPILUAK DAUDE ALDE GUZTIETATIK. LAGUNEK FLIPA EGINGO DUTE KONTATZEN DIEDANEAN...
JARRAI DEZAGUN...
HANDIK OSO HURBIL ETA HALABER URRUN...
ZER DIRA GAUZA HAUEK?
MUTIL BATZUK ZERGATIK ZARETE HAIN ESKULUZEAK NESKEKIN, OLAGARROEN MODUKOAK?
EEEE... EZ DAKIT... HARREMANAK IZATEKO DENAK BALIO DU, EZTA? ETA GAINERA GERO OSO ATSEGINGARRIA DA LAGUNEI KONTATZEA.
PLIK!
NIK GUZTIOK BEZALA HARREMANAK IZAN NAHI DITUT, BAINA NEURE BURUA KONTROLATU BEHAR DUT NESKAK EZ NEKARAZTEKO.
NI OLAGARRO HONI EZ NATZAIO AXOLA, DIBERTITU BESTERIK EZ DU NAHI ETA.
BADA, NI EZ NAIZ ONDO PASATZEN ARI. EEEEEEEZ!!!


PROBA GAINDITUA! ULERTU DUZU EZETZ ESATEN DIZUTENEAN, EZETZ DELA. LIGATZEKO DENAK EZ DU BALIO.
BUF!
BITARTEAN, PARKEAN...
IKUSI DUZUE NOLA ETORRI DEN GAUR LAURA? NESKA KATXARROA DA... JE, JE, JE.
GAINERA, TANGA ERAKUSTEN ARI DA ETA BAKERO ESTU HORIEKIN... SALTSA NAHI DUELA DIRUDI.
ZANTAR HUTSAK ZARETE. TITIEZ ETA IPURDIAZ GAIN, NESKOK BESTE GAUZA BATZUK DITUGU...
BAI, MUTILAK NOLA BEROTU ASMATZEKO BURUA.
AIZU, ZER MODUZ TXEMAREKIN LEHENGO EGUNEAN?
ONDO... BURUA KENDUTA, BESTE GUZTIA APROBETXATZEKO MODUKOA ZEN. JE, JE!!
BERRIZ ANERENGANA ITZULITA...
ZER ARI ZAIO GERTATZEN ZURE GORPUTZARI?
ALDATZEN ARI DA? LOTSA EMATEN DIZU? ULERTZEN DUZU? ATSEGIN DUZU? BEGIRA IEZAIOZU, ANE. ZURI GUSTATZEN BAZAIZU, EZ DUZU BEHARKO GUZTIEI GUSTATZEA.



MODELOENA EZ BEZALAKO GORPUTZA IZAN DEZAKET, EZ DUT INOREN ANTZIK IZAN BEHAR.
KRAASH!!
NIRE TITIAK, NIRE IPURDIA... EZ DAUDE HOR BAKARRIK MUTILEN GUSTUKOAK IZATEKO. NIK ERE GOGOKOAK DITUT ETA HAIEKIN GOZA DEZAKET.
PROBA GAINDITUA! ZEURE GORPUTZA EZ DUZU DESITXURATU BEHAR. DUZUNA ZEUREA ETA BAKARRA DA.
BEGIRA IEZAIOZU MAITASUNEZ ETA AZTERTU HARENGANDIK ZER ATSEGIN DUZUN ETA NOLA NAHI DUZUN TRATATZEA.
ZEURE GORPUTZAREN JABEA ZARA
BITARTEAN JON...
AIZU, JON, BADAKIZU NOLA GOZATU ZEURE GORPUTZAZ? LAGUN BAT AURKEZTUKO DIZUT...
SLUUUUUURP!!
HAU PLAZERA! PIXKA BAT GEHIAGO. AI NIRE LAGUNEK IKUSIKO BANINDUTE... EZ NUEN USTE HAU HAIN GUSTUKOA IZAN NEZAKEENIK...


ZEURE GORPUTZ OSOAZ GOZA DEZAKEZU, ETA EZ BAKARRIK ZAKILAZ.
SLUUUUUURP!!
SLUUUUURP!!
EGIA DA, EZ DUT UNE ORO NIRE LAGUNEKIN LEHIAN ARITU BEHAR EA ZENBAT ALDIZ JO DUDAN KANPAIA EDO NESKA BATEKIN AMAIERARA ARTE HELDU NAIZEN.
HORRELA HITZ EGIN BEHAR DA. EZ DUZU EZER FROGATU BEHAR.
PARKEKO EZTABAIDA AURRERA DOA...
NI ERE EGUNEN BATEAN "LEPO" IBIL NAITEKE ETA NEURRITIK ATERA GABE... TIRA ... KONTROLA GAL DEZAKEZU... EZ DAKIT...
BADA, NIRI HORI EZ LITZAIDAKE INOLA ERE GERTATUKO, NIK EDERKI ASTINDUKO NUKE!
JE, JE, JE... SINESTEN DIZUGU.
NESKA BAT ESKUERAN JARTZEN BAZAIZU, EZ DIOZU EZETZIK ESANGO. ZER EDO ZER EGIN AHAL BADUZU, HOBETO.
BAI, BADA, ZUK NESKALAGUNARI IPURDIA UKITU DIOZU, BESTERIK EZ. ERGEL HUTSA ZARA...
ANE, NON DAUDE ZURE MUGAK? EZAGUTU ETA ERRESPETA ITZAZU ETA ERRESPETATZEKO ESKA EZAZU.
NIRE MUGAK ERRESPETATZEA DA ZER GUSTATZEN ZAIDAN ETA NIRETZAT ZER DEN GARRANTZITSUA JAKITEA...
... ZERK EMATEN DIDAN PLAZERA ETA ZERK NAZKA...
... NON DUDAN GUSTUKOA UKITZEA ETA NOLA GUSTATZEN ZAIDAN NIRI MUSU EMATEA...
ETA HAU EZ DUT ATSEGIN!


MUTIL BATEK NIRE MUGAK ONARTZEN EZ BADITU ETA NIK AMORE EMATEN BADUT, LITEKEENA DA NIRI KALTE EGITEA ETA NIK GAIZKI SENTITZEA.
KONTUZ, JON!!! ZAPALGAILU HAU BALAZTARIK GABE DOA!
BAINA, ARRAIOA, NORBAITEK GELDI DEZALA!!! NIRE GAINETIK PASATUKO DA!!!
BROOOUMM...
ROAAARR...
NESKA BATEKIN ZAUDENEAN ZEURE BURUA KONTROLATU BEHAR DUZU. GARAITZEA EZ DA BAKARRIK OHERA ERAMATEA. BIDETIK GOZA DEZAKEZU BERAK ERE GOZATZEN DUELA JAKINIK.
SAIATU BEHAR DUT NI NEU IZATEN...
Saiatu zu zeu izaten
IRTEERAKO ATEA
SAIATU BEHAR DUT.
Saiatu zu zeu izaten
IRTEERAKO ATEA


BAI,... NI ZU NAIZ. ZU ZEURE GIDARIA IZAN ZAITEZKE.
NONDIK ATERA ZARETE?
ZER? MAITE-KONTURIK IZAN AL DUZUE?
UUUUUUU, JEJEJEJEE...
ANE, ITXIA, HORRELA EZ DUZU SEKULA EZER EGINGO!
JAJAJAJA...
JE, JE, JE! ZU BEZALAKORIK EZ DAGO, PIRU.
AIZAK, UTZI ANE BAKEAN.
BAH...
A BAI! ZUK SEGI HORRELA ETA EZ DUZU INOIZ LARRUA JOKO.
EZ HORIXE! NIK NAHI DUDANA AUKERATZEN DUT.
JARRAITUKO DU...


saiatu
zu zeu
izaten